

Euskara “Urbanoa” dela eta

Juan SAN MARTIN

Euskarazko literaturaren lehen izpiak XIV mendekoak ditugu, E. Garibaik bere amangandik jaso zituen Mondragoeko eresiak hain zuzen. Ez nuke esango kantok urbanoak ez zirenik. Hobeto esan, hiritarrak. Oinaz eta ganboarren arteko borroketatik sortu ziren eresiak, baina hiritarrak, noski.

Gaur ordea, zenbaitengandik entzuna eta irakurria ere badugu: euskara urbanoa asmatu dugula. Zer da “urbanoa”, hiritarra ezik? “Urbanoa” asmatze hori non sar geneza Mendebaldeko literatur estilo edo mugimenduetan? Besteek guregan izan duten eragin bera izan beharko luke gureak ere besteengan, baina ez da horrela, hori aldi edo estilo berezi batean kokatzerik ezin denezkero. Gure literaturaren korrontea ez bai dago besteengandik berezirik.

Agirien arabera, badakigu XV mende bukaerarako Gizpuzkoan hiri asko zirela bertako nekazari-tzakoek baino biztanle gehiago zi-

tuztenak. Lékukotasun bat jartzekotan, hala erakusten zigun Juan Madariagak Oñatiko demografia ikertzean, *Oñatiko Historia eta Arte bilduma* (1982) oñatiarrek elkarlanean osaturiko liburu ederriari egin nion hitzaurre haren X. orrialdean aditzera ematen nuenek.

Bernart Etxepare genuen 1545. urtean lehen liburu inprimatua eskaini ziguna, *Lingvae Vasconvm Primitiae* izenburuz; hastapen haren ondotik zori hobearen itxaropenez, bukaeran latinezko esaldi hura iragarritz: “*Debile pincipium melior fortuna sequatur*”. Hala gertatu ez bazen, gure aulezia da errudun, eta ez beste inor. Liburu horren azken argitaraldia ikus, faksimilez eta egungo grafiaz jartzeaz gainera, espainolera, inglesera, frantsesera, alemanera eta italierazko itzulpenez Euskaltzaindiak 1995ean argitara eman. Erdi Aroko olerkari kutsua du noski, baina bertako zenbait poema kontutan harturik, besteak

beste, hor ditugu adibidez: Judizio jenerala, Ezkonduien koplak, Amorez errekeritzia, Amorosen disputa eta Emazte fabore deritzaien zati liluragarri horiez gainera, Mosen Bernart Etxepare kantua autobiografia gisa eta euskararen goresmenak Kontrapas eta Sautrela deritzaien kopletan. Nork esango luke horiek nekazal poemak direla? Hiritar girokoak ez ote?

Axularren *Gero* (1643) liburua bera non kokatuko genuke? Axular, bere garaiko giroari loturik zebilen, eta Kristau doktrina hobeto ulertzeko aszetika gogoetazko saioak nork mugatuko lituzke zein eratako gizartearentzat diren? Baina, gure hizkuntzari buruz irakur dezagun sarrerakoan zioen honako hau: "Baldin egin balitz euskaraz hainbat liburu, nola egin baita, latinez, frantsez edo bertze erderaz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak".

Horregatik: "Etorri akit: zarra duk euskera, ala duk, aspaldikoa duk; bañon ez duk zartu, ez zimeldu, ez igartu, ez amaundu" zioen Orixek *Lenengo euskalegurenako Itzaldiak* (1921) Durangon Euskaltzaindiak ospatu zituen jardunaldi haietan (ikus bilduma hartako 31 orrialdean, "Eusko olerkitzaz" eman zuen itzaldi hura).

Uste horiek argi adierazten ditugute euskarak, hizkuntz zaharra izanagatik zernahitarako ahalmenak dituela. Eta hori erakusten digu gure literaturak.

Munduan itzulpenik gehien izan dituen liburua ez ote da *Biblia*? Perpizkunde garaian Europako hizkuntzarik gehienetara itzulia izan zen eta Joannes Leizarragak 1571an argitaratu zuen horren *Testamentu Berria*. Beraz, ez gindoazen hatzeratuak garaiko girotik. *Bible* edo *Testament zahar eta berria*, bere osotasunean ordea, L. L. Bonaparte printzearen eraginez, Jean Duvoisin kapitainak gainditu zuen, lehen zatiak 1859an, eta guzia 1865erako burutzeko.

Hain *Biblia* zale zen Toribio Etxebarria eibartarrak, Eibarko euskalkian idatzi zuen *Ibiltarixanak* (1967) deritzan liburuan, giputzak alde batetik eta garai hartako "garbizaleek" bestetik, Eibartarrei leporatzen zioten (edo ziguten) hizkera mota txarragatik, eta Toribiok, bere euskararen erabilerara nolabait zuritu nahirik noski, erderaz idatzi zuen sarrerakoan hara zer esatera behartu zen:

"Se me dirá que he recurrido a esta figura para cubrir la mercancía, por lo que de ella pudiera apartarse de lo que los eruditos consideran lo académico. Y es la verdad; porque yo no sé otro euskera que el que aprendí de los padres y he oído en los caseríos de nuestro término y en los obrado-

res de las viejas artesanías de Eibar. Bien que, durante más de medio siglo, él ha hecho mi gasto diario de la familia, los lugares de trabajo, en la calle y tertulia, sirviendo, no sólo a la vida común de relación, sino también al tema literario, en el amplio sentido de la palabra, que no solía estar ausente de nuestras conversaciones de la piña de amigos de la Casa del Pueblo. Y cuidado que hemos hablado allí de lo divino y lo humano!..."

Eta oroi Toribio zenak aipatzen zuen Eibar hura, bere denboran, hamaika mila biztanletik hamalaura igo zela eta guziak euskaldunak. Gaztelatik etorriak ere ez zuten beste irtenbiderik euskaraz ikasi baino. Adibidez, gogoratzen naiz Molinero deituradun "Kamarro" bezala gaitzizenez ezagutzen zenarekin, Guadalajaratik etorria izanarren, euskaraz ikasia eta gurekin mendira joaten zenean euskaraz ongi mintzatzen zekien harek gazteleraz zein gaizki egiten zuen.

Toribio Etxebarriak 1959ko ekainaren 22nean, gauean erromeslari jaialdia bisitatu zuen Ingalaterran Stonehengw-go harrispil haren inguruan eta barne-gogoetazko zenbait bertso sortu zitzaizkion eibartarron hizkeraz. Bere azken bertsoan aitortzen zuen antzinatiko harri haien antzera gelditu zaigula guri hain maite dugun euskara, *Ibiltarixanak*, 316-317 orrialdeetan zioenez. Eta hara bere azken bertsoa.

Baña, onen arri aundixak letz
ikaratzen mundu guztia,
guri geldittu jaku, ordez,
itz esan-gura aundiz betia,
zorioneko zorionez,
asko maitte dugun Euskeria!

Era hortakoa zen bere herri-hizkeraren egoera naturalean oinarriturik, baina aldi berean, kulturaz hornituriko hiritarraren bertsogintza.

Iritzi horien arabera, XVII mendeko Joannes Etxeberri Ziburukoa non kokatuko genuke? Bere eliz-liburuak aski bereziak dira. Gainera, eliz-liburu batean mugatu ezinezkoak hiritarra (urbano) zein nekazaritza edo base-rritar. Sarako Joannes Etxeberri medikuarenak, zeinek eman zituen XIX. hastapenetan *Laburdiri eskuararen hatsapenak* eta *Eskual-Herriari eta euskaldun guztiei eskuarazko hatsapenak latina ikasteko*.

Eta beste mediku hura, Jean Etxepare, *Buruxkak* (1910) eta *Berebirez* (1931) liburuen egileaz hain lan polita osatu digun Fr. Luis Villasantek Krutwig-en omenezko *Iker*, 10 (1997) liburuaren 369 orrialdean. Hara bertan zer dioen, P. Lafitte zenak J. Etxepareren lanetaz zuen iritziaz: "Berak sortu du euskara berri bat, nik euskara aristokratikoa deituko nukeena, Abbadie-rena bezain ausarta eta are aberatsagoa...; euskara bat, alegia, sentimenaren edo pentsakeraren nabardura guztiak egoki eta nobleki itzultzeko gai dena".

Literaturaren inguruan (1980) saio liburuaren lehen partean agertu nituen Europako mende-baldean literaturgintzaz izan diren korronteak nola jarraitu ditugun XVI mendea gerotik. Lehenaldi hura zen Pizkundera edo Berpizkundera, gero Xabier Maria Munibe Peñafloidako kondeak Etxeberri Sarakoarekin bateratsu markatuko zigun Argien aldia edo ilustrazioaren sarrera.

Behar bada horien aurretik jartzekoa dugu Manuel Larramendi, eta bazen nor Salamancan irakasle ospetsua zen andoaindar hura. Honen ideia berriak hor ditugu euskararen berbizkundero orotariko hizkuntza aurkeztuz. Egia esan, euskaraz ez zuen asko idatzi, baina *El Imposible Vencido* (1729) gramatika hori ditugu zenbait testu atal adierazgarri. Hor bezala *Corografía de la Provincia de Guipuzcoa*-n ere (liburu hau 1754an idatzia eta 1882 argitaratua). Bere ordenakide zen Agustin Kardaberazek ordean, fedeak ekintzekin erakutsi zigun, aurrekoaren ideietatik abiatuz bere frutu ederra eskainiz. Gehienik erlijio gaia erabili zuen baina kontutuan hartzekoa dugu *Eusqueraren berri onac* (1761), non irekitzen zigun hizkuntza orotariko gaiz idazkiak hornitzeko erak. Horien eraginetik zetorren Juan Antonio Mogel, berberak aitortu zigunez.

J. A. Mogelek *Peru Abarka* (1881 urtean argitaratua, baina

oroi egilea 1804 urtean hil zela) deritzan liburuan, elkarrizketen bidez azaldu zituen bere garaiko langintzak eta ohiturak. Olazaharretako lanak, linuaren penak, anatomia zehatza zerrihilketaren bidez, alegi batzuk moralitate lekukotzak jartzeaz eta abar; horrez gainera ondoko eraskinean erromar klasikoen zenbait itzulpen eskainiz. Horregatik ez da batera harritzekoa Justo Garate mediku zenaren ustez euskaraz idatzi den libururik hoberena bezala agertzea, *La época de P. Astarloo y J. A. Moguel* (1936) zeritzan liburuan zioenez. Aipatu dudan zerrihilketaz, ez harritu, gai hori aitzaki harturik anatomia hain egoki adierazteaz, zeren oroi J. A. Mogel sendagilearen seme zela eta anaia ere sendagile zuela, aldi berean X. M. Munibe Peñafloida kontearen inguruan elkarrekide Euskal Herriaren Adiskideak zeritzan mugimendu hartan. Uka ezinezkoa Argien aldiaren eraginetik ziharduela. Alegigintza ere garai haietakoa bai zen eta, oraintsu, X. Alzibar langile zintzoak *Ipuiak* (1745-1995) alegien bilduma ederra lortu eta eskaini digu.

Haren iloba Bizenta Mogelek ordean, Esoporen alegiak euskaraturik eman zituen, osabaren zuzenketaz, *Ipui onac* (1804) izenburuz. XIX mende hasieran Europan ohi zen era hortatik aritu ziren alegigintzan A. Paskual Iturriaga gipuzkoarra zein J. B. Arxu

zuberotarra. Geroxeago etorri zen bide beretik Jules Moulier "Oxobi". Horiek erakusten digute Bizkaitik Xuberoara aldi berean garaiako literaturgintzari jarraiki ari zirela.

Aldiz, Argien eta Erromantikoaldiaren sarreran jarri beharrezkoak iruditzen zaizkit J. I. Iztueta zaldibiarren bilduma lanak: herri kanta, dantza eta musikak bereziki, ondorenez Gipuzkoako kondaira edo historia-gintza. Bilketa garaia zen eta hemendik igaro zen G. Borrow ingelesak *The Bible in Spain* (1842) liburuaren 366 orrialdean zioenez, euskaldunok kantari onak ginela baina poesian ez ginela hain trebeak. Hala ere, bazirela zenbait merezigarriak, horien artean, adierazpenez, "Itsasoan urak andi"-ren bertso soila agertzen zuen. Baina, olerki hori zehatzago ezagutu nahi duenak, ikus kanta osoa A. Jorge de Riezu-ren *Flor de canciones populares vascas* (Buenos Aires, 1948) liburuaren 68-69 orrialdeetan. Honako hau kontutan harturik, maiteminezko poemak hiritar eta nekazal tarte horretan mugatzekoak ote?

Gauzak ez dira hain ximpleak eta Europaren mendebaldeko kulturari, guri ere eguzkiak aldian aldiko argia ekarri digula esan behar. Erdi Arotik datorzkigun baladak ere, gai horietaz zenbait gogoeta egingo bagenu, zertaz pentsa ez zaigu faltako. Juan Mari

Lekuonak oraintsu eskaini digun "Euskal baladak tradiziozkoen estiloaz" (*Iker*, 10, 237-257 orr.) azterlanak erakusten digu gure literaturaren orotarikotasuna ez dela oraingoa.

Iragan mendeko Erromantikotasunari loturik zebiltzan gehienbat, besteak beste, J. B. Elizanburu, Duvoisin, J. Manterola, Arzak, Artola, Iparragirre, M. Soroa, J. Barbier eta gainerakoek. Erromantikotasunak berez zekarren Europa guzian nekazaritza edo antzinatasuna arkadia-ideal gisa erabiltzea, baina ez beti. Zeren idazlerik gehienak kalekumeak izaki. Horregatik, gure artean adibidez, beha dezagun J. M. Hiribarreren *Eskaldunac* (1853) poema, eta erraz ohartuko gara, beste ezer baino lehen, lan hau historiari eta Euskal Herriko geografian bertako euskaldungoari uztartuago zegoela. Hala ere, uka ezinezkoa zaigu erromantiko korronte horrek zekarren baserria eta ohitura zaharrak literaturan balio bereziz emateari eta gure mende honen hasieran bertan oraindik zenbait idazlek bide hori jarraitzea. Baina, garai hortako fenomeno hori beste hizkuntzetako literaturan ere hala gertatu da.

Adibidez, hor aipatu dudan Jose Manterola donostiarra, kalekumea zen, "urbanoa" noski, baina Valladolid, Zaragoza eta Madrilen estudiantua, Filosofia eta Letretan lizentziatu arte. Horregatik izan zen Donostiako Institu-

toan irakasle eta zuzendari. Gainera, *Cancionero Vasco* bilduma hura egin zuena eta *Euskal-Erria* aldizkariaren sortzailea. Hala ere, bere garaiko semea izaki eta erromantiko giroan murgildurik ibili zen. Ikus berari buruz Euskaltzaindiaren *Eusker*a, XXIX, 1984, 437-464 orrialdeak. Literaturan erromantikoa izatea aski ote da bere emaitza hiritarrangandikoa ez izateko? Eta Jose Manterola ez zen horietariko bakarra. Jean Duvoisin *Baigorriko zazpi liliak* (1832an idatzia eta 1884-1885 urteetan Pauben zatika argitaratua eta azkenik 1987an edizio berri prestaketa eta aintzin-solasa egin niona) ipui liburu hori non kokatu ez genuke asmatuko. Ez eta Jean Barbier garaztarraren kondaira, ixtorio eta orotariko lanez ere ez da erraz iritzi mugaturik.

Baina joan zen mendeko Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" zena ere ez ote zen ba donostiar kalekumea eta bere bertso umorezkoek gainera kantetarik anitz maiteminezkoak? Irakurtzekoa "Bilintx"en *Neurtitzak eta neurri gabeko itzak* (1911) deritzan lehen bildumari Karmelo Etxegarai egin zion hitzaurrea. Nork zioen: "Bilintx-ek ez du ezagun donostiarra dana bakarrik. Ezagun du gañera, Donostian kaletarra dana. Baserritarra izan balitz, mendian, eguzkia aurrez-aurre ikusirik, idi ta beyakin nekazartzan igaro izan balitu bere egunak, etzan mintzatuko oi zan era-

ra. Gure artean erraz aztuko ez dan Manterola zanak, esan zuen *Bilintx*, Donostiako Elizanburu zala: eta Elizanburu zala, Sarako, Lapurdiko *Bilintx*. Nere iritzian ori ezin esan diteke egiaz, batik-bat, Elizanburu baserritarra zalako, eta *Bilintx* kaletarra. *Bilintx*-ek ez du beñere nekazariaren zorientasunik gogoratu..."

Gu mutiko ginenean ezaten ziguten ez zela euskaraz idatzitako libururik, doktrinaren bat edo izan ezik. Orain badirudi berdintsu ari direla euskara "urbanoa" asmatu dutela uste duten horiek. Edonork esango luke Mitxelena eta Villasanteren euskal literaturaren historiarik ez dituztela irakurri edo daudenik ere ez dakitela. Bestela, ulerkaitza iruditzen zait aldian aldiko literaturgintzak zer eman duen ez jakitea.

Baina, gure mende hontan sartu ginenetik, ez ahaztu beste honako itzulpen lanez: J. Altunak Oskar Wilde-ren *Ipuñak* (1927), A. Larrakoetxea "Legaldi" *k Grimm anayen ipuñak* (1929), G. Manterolak Schmid-en *Ipuñak* (1929), B. Garro "Otxolua" *k G. C. della Croce-ren Bertoldo eta Bertoldin* (1932), eta abar. Horiek, uste dut, gure herri literaturarekin batean, hemengo idazleak bizkortzeko balio izan zutela eta aipaturiko itzulpenok Urruzuno, Buztintza "Kirikiño" eta besteekin batean izan nituen nire euskarazko lehen irakurgaitzat.

Txomin Agirreren *Garoa* (1912) nekazari eta artzantza girokoa da, noski, baina *Kresala* (1906) arratzale gizartekoa. Euskararen aldetik ospe handia izan dute, ekandu zaharretara begira eginak daude noski, baina ez uste dena izan denik nekazari edo arrantza girokoa. Tx. Agirre berak aitortua da Pereda zenaren erara ohiturazko eleberrigintza eskaintzea zitzaiola gogoko; baina hala ere, bere luma ez da Pereda-rena hainako barrokotasunez hain aspergarria, aski bizkorra eta bizia baizik.

Ondotik dator aldi berri bat. Tomas Agirre "Barrenoso"renak hor daude *Gazigozoak* (1933) eta *Uztaro* (1950). Lehen orotariko kontakizunez eta bigarrena eleberrria. Gainera, bigarren hau, 1936ko gerratea baino lehen idatzia omen zuen eta gaia Donostiako kasinoetako jokoaren inguruko gizarte giroan oinarritzen da.

Eta, zer esan Agustin Anabitareren idaz-lanetaz? Donostiako semea zen eta bere hiri hortan haurtzarotik gaztaroa zehar bizitako giroa eleberrigintzarako gaiatzat hartu zuen. Harentzako ez zegoen idazkera "urbanoa" asmatu beharrik, hura bai zen bere hizkuntza naturala. Irakurtzea besterik ez dugu *Usauri* eta *Donostia* (lehenak 1929an eta bigarrenak 1932an Euskaltzaindiaren Schuchardt literatura saria jaso zuten eleberririk ditugu). Hiruga-

irena ordea, *Poli* (1958) zeritzana, haurtzaroko bihurrikerietan oinarriturik osatua, tokitzat Donostiako alderdi zaharra eta Urgull muinoaren inguruak dituela. Horiez gainera, *Antziñako Olinpiar Jolasak* (1925) eta beste zenbaiten ondotik, bidailari bezala, *Aprika-ko basamortuan* (1961) emanenezake azkenengo idaz-lantzat. Haren literaturagintza, "urbanoa" ez bada, hiritarra bai noski.

Garai bakoitzeko estilo eta joerak bereizten ikasten ez badugu, bihar edo etzikoek esan dezakete J. Mirande eta Tx. Peillen paristar euskaldunak ere gure literaturaren barnean ez zirela "urbanoak".

Yon Etxaide adiskide donostiarrak ere aski eleberririk idatzi dizkigu gure kondaira eta pertsonailetan oinarriturik. Bere liburuok ez dira muga hertsietan kokatzekoak, baina ezta ere nolana hikoak, munduan edonongo literaturatan ohi diren erakoak baizik. Egilea berez hiritarra izanik, ez zuen hizkuntzaren aldetik ezer berri asmatu beharrik.

Bestalde, zer esan poeteri buruz? Erromantiko garaian agertu bai ziren inoiz izan ditugun bikainenetakoak. Hala ere, ez dira erraz mugatzekoak Piarres Lafittek hain egoki aurkeztu zigun Salvar Monho bezalakoak. Guzien ondorenean agertzen zaizkigu bide berriak ideki zituzten olerkariak, lirikotasunetik egungoen arte hor ditugu, besteak beste, K. Sagartzazu "Satarka", L. Jauregi

"Jautarkol", E. Urkiaga "Lauaxeta", N. Ormaetxea "Orixe", J. M. Agirre "Lizardi", J. Zaitegi eta abar.

Ez dezagun pentsa aurrekoek ezer egin ez zutenik, belaunaldi bakoitzak eman bai du berea eta lehengoena ukatu gabe jarraitu beharra dugu gizaldi bakoitzak dakarren heinean haize berrietan arnasa harturik zerbait berri zabalkundez eskaini ahal izateko. Horregatik nioen, artean hain ongi ikusten ez zenez, berrikuntzaz zetorren Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* (1964) poema liburuaren alde aurkezpenez idatzi nuen hitzaurre hartan:

Bere gaztaroaren jabe delarik, haize berriak dakartzki euskal poesiaren erresumara, arnasa berriak hizkuntza zaharrari. Eta, zenbat dira beste horrenbeste ematen dutenak? Gure gaurko olerkaririk gehienak, huskeritik huskerira, hutsean dabilta; eta, ez da batere harritzekoa gehien-gehienok Arestirekin bat ez etortzea. Izan ere, gaur, eskuetako behatzekin kontatuko nituzke egiazko poeta euskaldunak. Berengandik amiltegi sakon batek bereizten ditu olerkari ustean ari diren bertsogielak. Bertsogile hoiek, Lizardi, Orixe eta Lauaxetaren bideeri jarraitu nahian doaz, moldekaitzez antzemanaz, haien egiazko arteari hurrik emateke. Landutako lurra goldatzen. Garai bakoitzak berea eskatzen du. haiek beren denborako arloa

landu zuten, eta oriangoa, legez, gaurkoaren beharrez da. Nahita nahiezkoa da lehengoak ezagutu beharra, eta baita gaurko poesiaren arterioa nondik nora dabilen ere, zergatik, eboluzio hori ezagutzeke ez da sorkunde egokirik. Non ari garen zintzoki jokatzeko, Lizardik ongi zekien bezala:

Baña nik, izkuntza larrekoa
nai aunat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.

Lizardiren langintza, hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtzean zegoen. Baina ez bere aurreko guziak nekazariak zirelako, erromantiko mugimenduaren murgiletik irten ezinik itotzen ari zirelako baizik. Geroztik biderik aski urratua da eta horregatik azaldu zigun J. L. Davantek "Sonetoaz gu argibide" zeritzan txosten hura (ikus *Euskera*, XXXV, 1990, 137-148 orr.), non agertzen zigun Patxi Altunak lehenago esana: "Hamalaukoak, jatorriz euskarazkoak ez direla esan beharrik ez dago: Italian sortu ziren dirudienez, Berpizkunde garaian. Haiek eta gaztelerazkoak ezagutzen zituen gutxienez Oihenartek, haien erara berea egin zuenean". Ondorean, Davantek, zerrendan jartzen ditu Arrese-Beitia eta "Oxobi" gandik oraingoak arte. Beraz, betoz poesiagintzara ere gazte berriak, berritzaile iraupen gogoaren jarraitzaile.

Antzerkiaz ostera, zer esan? Antzerkigintza zaharra Zuberoa eta Baxenabarreko pastoraletan oinarritzen da; berria ordea, XVIII.eko bat edo beste alde batera utzirik, XIX.etik Gipuzkoan. Hau, garaiagatik, gehiena Erromantiko mungimenduaren eraginezkoa zen noski, baina bada bestelakorik ere, batez ere mendearen bukaera ingurutik gure egunokarte, sorketazkoak zein azken modetako itzulpenezkoak. Genero hori ezagutzeko saio lan ederra eskaini zigun Patri Urkizuk *Euskal antzertia* (1984) izenburuz eta zerbait jakin nahi duenak bertara jo besterik ez du.

Baina bada beste gairik ere. Medikuntzaz aritu zirenen artean M. Aranburu eta M. Bago. *Errico geenteentzat osasun legueaz eta medicantzako argibideak* (1899) liburuaren egileak. Joseba Zinkunegi osagileak ere eman zigun *Lana, atsedena eta jolasak* (1928) zeritzan liburuzka eta horrez gainera Euskal-Esnaleak eraturik antolatu eta ondorean *Itzaldiak* izenburuz agertzen zituen bilduma liburu haietan badira, nik dakidanez, antzerako gaiez Zinkunegi mediku beraren bitartean 1920 eta 1928koak. Buruz ari naiz, baina Principe de Viana erakundeak *XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak. Prosistas contemporáneos navarros en lengua vasca* (1968) liburuan jaso zituen Pablo Fermin Irigaray "Larreko" zenaren medikuntzari bu-

ruzko idazkiak, Henrike Zubiri "Manezaundi"ren bestelako idazkiekin batean. Larrekoren seme eta hura bezala mediku zen Aingeru Irigaray euskaltzainak bilduak. Baina ez ahaz Aingeru berak, *Principe de Viana* (1965) aldizkariko 98-99 zenbakiaren 133-159 orrialdeetan, "Esbozo crítico con textos de Literatura éuskara profana (del siglo XV al XX)" izenburupean argitaratu zuen lanez, non jaso zituen euskaraz agertutako lan berezi eta jakin garri batzuk, eliz eta baserritar gaiekin ezer ikustekorik ez zutenak. Bere egunean hain bikaina iruditu zitzaidanez "Euskal literatura mundutarra" izenburuz erreseña egin nion *La gran Enciclopedia Vasca*-ren lehen liburukiko 793-794 orrialdeetan, 1966 urtean. Horiek ezaguturik nork esan euskal literaturan orotariko lanak ez direnik?

Non dira orain medikuntzaz idazteko gai diren sendagile euskaldunak? Aipatu dudan *Itzaldiak* sail hartan bada gai jakingarriak. Medikuntzaz, arestian aipatu dudan Zinkunegirenez gainera, Inazio Artetxeren "Gure gaitzak" (1923) eta "Sendakintza gizaldiyetan zear" (1928). Baina baita ere, beste gai batzuren artean, behin baino gehiagotan aipatua dudan Karmelo Etxegarairen "Euskalerriko itsas-gizonak" (1923) eta J. M. Barandiaranen "Eusko-mitologia" (1924) eta abar.

Eta, Barandiaran aipatu dudanez, oroi *Euskalerriko Leen-gizona* (1934) iker liburuaz ere. Beraz, zer gertatzen zaigu? Ezagutu ez ala ezagutu nahi ez? Prehistoria gaiak euskaraz emateaz jarri zituen Barandiaranek gai horren lehen oinarriak euskaraz eta Jesus Altuna jarraitzaile izan du *Lehen Euskal Herria* (1975) liburuarekin.

Euskal Editoreen Elkarteak bilduma ederra burutu du, Jauralaritzaren laguntzaz, *Klasikoak* deritzan sailean, bereziki Koldo Mitxelenaren euskarazko lanak argitaratzeaz. Non ikus ditzakegun bere orotariko emaitza. Zeren askok uste bai zuten gure hizkuntzalari harek oso guti idatzi zuela euskaraz. Nire ustea ez zen hori heriotzatik laster *K. Mitxelena. Gizona eta Hizkuntza* deritzan *Egan*-en ale berezi hura prestatu genionean. Mitxelenak gai desberdin asko jorratu zituen euskararen alorrean. Baina *Klasikoak* sail horretan hutsune nabarmenak aurkitzen dira. Maila hortako beste horrenbeste edo gehiago bildu ezinik ez da eta on egingo liguke jarraipenez argitara emango balituzke.

Badakigu Unamunok zioela, euskaraz ezin zela ideia generiko eta abstrakturik adierazi eta euskaldunok erdara jo behar genukeela. Filosofia eta zientzia lanak falta zaizkigula? Jakina hutsuneak nabari direla, baina ez hizkuntzaren ezinagatik, zeren

guk ere besteek bezala mailegoak gureganatzeko eskubide osoa bai dugu.

Iker 10, alearen 79-104 orrialdeetan Miren Azkaratek agertu duen "Hiztegi batua" deritzan artikuluak ematen dizkigu argi asko hizkuntzak zenbait gaitarako dituen ajeak zer diren eta nola burutu ahal izango direnaren berriak, gure euskara idatziaren historia arabera. Mirenek errepikatzen digu Altubek esan ohi zue-na:

"Euskal Herrian, zabal zabal antzinatik eta ondo lurra hartuta bizi diren, eta euskaldun jatorrentzat esa-erraz diren oro" izango direla oinarri. Jarraian adieraziko digunez, hortarako beharra: "...tradizioko maileguak hartu (horien ordez hitz berriak sortzea baztertuz), tradiziorik ez dagoen kasuetan, aukeran egongo litzake mailegua hartzea nahiz hitz berria sortzea"... Ondotik, Villasanteren iritzia jarraituz, nazioartekoak diren maileguak guk ere onartu beharko genituzkela: "sartaldeko herri eta hizkuntza guzietan zabaldurik eta onaturik dauden hitzak, guk ezetsi nahi izan ditugu. *Técnica, máquina, política, religión*: honelako hitzak nongo hizkuntzan (Okzidenteko kultur eskeran bizi direnetan behintzat) ez daude hartuak, eta ez hartzeaz zer egiten dugu, gure burua hil baizik. Hizkuntza landu guztiek erabiltzen dituzten hitzak dira, eta haien antzera, guk ere

badugu eskubidea, eta bai beharra ere, erabiltzeko. Bestela, beharreko diren gauzak ezin esateko estuasunean jartzen gaituzte. Gaurko kultura orokorrak mila hitz zabaldu ditu bazterretan, eta hitz horiek berdintsu erabiltzen dira Europako hizkuntza gehienetan".

Baita ere gogoraziko digu Mitxelena berak Arantzazuko Biltzarrean (1968) zioena:

"Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal-hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago". Baita ere, gaineratzen du beste honako esaldi jakingarri hau ere: "Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du aldez aurretik bakoitzaren neurria eta muga?"

Luis Jiménez Martos-ek ere, *Poesía hispánica* 1968 prestatu zuenean, non sartzen zituen lehen aldiz euskarazkoak ere, bere hitzaurrearen XIV orrialdean zioen: "La superación del regionalismo, estrictamente considerado, tenía que incidir sobre la manifestación poética, tenía que potenciarla hacia otros objetivos más ambiciosos". Ez zekien nonbait,

urte haretan, hemengo zenbait poeta Alemania, Suiza, Italia eta Belgican bizi zirenik eta hortik jaso nuen *Uhin berri* 1964-1969 tarte horretako bilduma osatzea, 1930 urtea geroztik jaioak ziren euskal poetekin. Asmo berarekin eta Serafin Basauriren laguntzaz bildu eta argitaratu *Hegatsez. Hitz-lauzko bilduma* (1971), hiru-rogeta bat idazleren lanekin, alde z aurretik batzuei beren ohizko gaietz idatzi zezaten eskariz eta beste batzuei libre utziz. Horren bidez erakutsi nahi genuen euskaraz ere orotariko lanak idazten zirela.

Horren arabera, argi dago, euskaldun bakoitzak berari dagozkion gaietan ahalegindu beharra duela.

Adibidez, 1997ko Premio Nacional de Literatura saio arlorako epai mahaia osatzeko izendatu ninduen Euskaltzaindiak. Sari hortara, argitaratzaileek, egileek eta mahaikidetzak osatzen dutenek aurkezten dituzte aurreko urtean argitaratutako liburuetatik. Kultur Ministeritzatik igorri zidaten ordurarte aurkeztuen zerrenda, nire aldetik euskarazkorik sartu nahi nuen galdetuz. *Egan* 1997, 1-2 zenbakiko 227-228 orrialdeetan agertu zen zerrenda miatu nuen, baina Madriletik igorri zidaten egile eta tituluen aurrean aski maila zutenik ez nuen aurkitu. Baina, harrigarria bada ere, handik igorritako zerrendan hiru euskaldunen lanak zeuden gaste-

leraz. Eskuarlean zerabilten gaia euskaraz gaintu ezinagatik ote? Hor dago gako. Saiaerarako arlo oso zabala da, baina euskaldun bakoitza bere gaietan euskaraz ahalegintzen ez bada nekeza zaigu aurrerabideak irekitzea.

Euskaldun bakoitzak bere ofizioak edo lortu duen jakintzak ematen dion arloa betetzen ahalegindu beharra dauka. Hala ezik, Axularrek zikoena esaten jarraitu

beharko dugu: "euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak".

Beraz, gazte berrien baitan itxaropena jarritz, bakoitzak berari dagokion gaitik eta ahal duen mailatik segi dezatela literatura lantzen. Hortik emango bai zaio hizkuntza zaharrari etorkizun berria.

Dena dela, argi bezain garbi dago: euskararik ederrena, erabiltzen dena.